

Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzua erabiltzeko baldintzak:

BIZIKLETEN APARKALEKU SEGURU
AUTOMATIZATUAK AZPEITIAN



Lehenengoa. Zerbitzuaren kudeatzailearen identifikazio datuak.

Azpeitiko bizikleten aparkaleku seguru automatizatuen zerbitzuaren kudeatzailea Azpeitiko Udala da, eta INTELLIGENT PARKING SL enpresak, besteak beste, honako ardura hauek izango ditu: lokalerako sarbideen kontrola eta zerbitzu horretan web bidez www.parkingverde.com edo PVerde aplikazioaren bidez erabiltzaileek egindako altak kudeatzea.

Bigarrena. Erabiltzaileak.

1. 18 urtetik gorako pertsonak izan daitezke erabiltzaile, eta beren kargura dauden adin txikikoei (18 urtetik beherakoak) ere eman ahal izango diete erabiltzaile izateko baimena. Kasu horretan, aparkalekua erabiliko duten pertsonak adina alta egin beharko dituzte zerbitzuan.

Erabiltzaile izateko, dagozkion kontratuak sinatu beharko dituzte (bat erabiltzaile bakoitzeko) Intelligent Parking SL (PVerde) enpresarekin. Mugikor zenbaki bat (desberdina) eta bizikleta bat edo bi lotu ahal izango dira zerbitzuko alta bakoitzari dagokion PVerde-ren kontratu bakoitzari.

2. Pertsona juridikoek ere eman dezakete alta zerbitzuan, langileak erabiltzaile moduan baimentzeko. Dagozkion kontratuak sinatu beharko dituzte (bat erabiltzaile bakoitzeko) Intelligent Parking SL (PVerde) enpresarekin, eta mugikor zenbaki bat (desberdin) eta bizikleta bat edo bi lotu zerbitzuko alta bakoitzari dagokion PVerde-ren kontratuari.

Hirugarrena. – Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuan alta emateko prozedura.

Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuan alta emateko egin behar diren urratsak honako hauek dira:

1. PVerde zerbitzuan erregistratzea mugikorreko doako "PVerde" aplikazioaren bidez edo www.parkingverde.com webgunearen bidez, zerbitzu horretarako INTELLIGENT PARKING SL enpresak ezarritako baldintzak onartuta. IFK B.01529361.

PVerde zerbitzuan alta emateko, sistemak kode bat bidaltzen du zerbitzuaren erabiltzaileak PVerde-rekin egindako kontratuari lotutako mugikorrera.

Kontratu horrek aukera ematen du Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuan alta emateko, webgunearen bidez edo PVerde-ren App-aren bidez.

2. Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuan alta ematea, espresuki adierazita altaren luzapen automatikoa edo berritze automatikoa nahi den, eta agiri horretan ezartzen diren sarbide eta erabilera baldintzak onartuta.

Alta emateko prozesua amaitzeak berekin dakartza baldintzak onartzea eta Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuko alta.

Alta emateko prozesuan zehar erabiltzailearekin erabiliko den komunikazio bide nagusia telefono mugikorra izango da.

3. Izena emateko prozesua amaitutakoan, PVerde zerbitzuak Azpeitiko bizikleta aparkalekurako sarbide gakoak komunikatuko ditu app-aren bidez edo erabiltzailearen fitxan, web bidez erregistratu bada, PVerde-rekin egindako kontratuari eta Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuko altari lotutako mugikor zenbakira.

Gakoak eta beste identifikazio baliabide batzuk pertsonalak eta besterendu ezinak dira (adin txikikoen eta pertsona juridikoen kasuan baimendutako erabiltzaileei lagapena egiteari kalterik egin gabe), eta izen-emateari dagokion baliozkotasuna izango dute.

Azpeitiko bizikleta-aparkaleku sisteman aparkatzeko eskubidearen titularrak ezin ditu transferitu eskuratutako eskubideak zerbitzuan alta hartzearen eta zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzen onarpenaren ondorioz.

Azpeitiko Udalak alta berriak sinatzea mugatu dezake plaza erabilgarrien eta zerbitzuaren asetasun mailaren arabera.

Laugarrena. Aparkalekuaren ordutegia.

Aparkalekuak eguneko 24 orduetan funtzionatuko du.

Kausa justifikatuengatik, Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuak eskubidea du zerbitzua erabiltzeko ordutegia edo aparkalekua irekitzeko denbora aldatzeko, aurrez abisatu gabe. Hala ere, erabiltzaileei horri buruzko edozein aldaketa komunikatzen saiatuko da.

Bosgarrena. Izen-ematea

Une honetan abonua modalitate bakarra dago eta doakoa da.

Izen-emate batekin bizikleta bakarra aparka daiteke. Hala ere, titularrak sisteman gehienez identifika ditzakeen bi bizikletetatik zer bizikleta aparkatuko duen aukera dezake. Horrek Azpeitiko bi bizikleta aparkaleku estalietarako balioko du.

Zerbitzuak aparkalekuan bizikleta gehienez ere zazpi egunez jarraian aparkatzeko eskubidea ematen du, hemendik aurrera kontatuta:

- Erabiltzailea aukeratutako gailuaren bidez (gakoak, telefono deia...) aparkalekuan sartzeko eta bizikleta aparkatzeko identifikatzen den ordutik, aparkalekuan sartzeko eta bere bizikleta berreskuratzeko berriz identifikatzen den arte.

Seigarrena. Baja zerbitzuan.

Erabiltzaileak eskatutako baja.

Erabiltzaileak baja eman dezake Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuan; horretarako, izen-ematea ez duela berritu nahi adierazi behar du aplikazio mugikorrean edo webgunean.

Zazpigarrena. Zerbitzuaren erabilera.

Sarbideak Jose Artetxeko eta Salbeko bizikleta aparkalekura.

Espaloian, bizikleta eskuan dela egingo da zirkulazioa.

Erabiltzailea izango da hirugarrenei sortutako kalteen arduradun bakarra.

Erabiltzaileak Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzuaren bizikleten aparkaleku seguru automatizatuetarako sarbidea izango du aplikazio mugikorraren, kode pertsonalen edo identifikazio pertsonalerako telefono deiaren bidez.

Zerbitzuko alta bakoitzeko ezin da erabili aparkaleku bat baino gehiago aldi berean, eta izen-emateak ez du eskubiderik ematen erabiltzaile bakoitzarentzat plaza jakin bat erreserbatzeko horretarako gaitutako barrutiaren barruan.

Baliteke sistema oso erabilia izatea. Azpeitiko Udalak ez du bermatuko bizikleta aparkalekua beti erabilgarri egongo denik.

Sartzeko eta irteteko prozedura

Bizikleta bat aparkalekuan aparkatzeko prozedura honako hau da:

Erabiltzaileak zuzen baliozkotu beharko du bere kodea aplikazio mugikorraren bidez, botoietan gako pertsonala sartuta edo sarrerako atean telefonoz deituz. Pertsona bat eta bizikleta bat bakarrik sar daitezke atea irekitzen den bakoitzean.

Jarraian, bizikleta aparkalekuko ate automatizatua ireki egingo da; erabiltzailea barrura sartuko da, aparkaleku plaza aukeratuko du, eta bizikleta lotuko du. Bizikletak behar bezala giltzatu beharko dira bizikleta aparkalekura.

Azkenik, erabiltzailea espaziotik irtengo da, eta atea ixteko botoiari emango dio. Erabiltzaileak atea itxi arte zain egon behar du, zerbitzukoak ez diren pertsonak sartzea ekiditeko eta bizikleten aparkalekuaren barrutia ondo itxita geratu dela ziurtatzeko.

Erabiltzaileak bere gain hartzen du bere burua identifikatzeko betebeharra bere bizikleta aparkalekuan uzteko edo berreskuratzeke, eta aparkatzeko denboren sisteman agertzen diren datuetan oinarrituta sortzen diren betebeharrak ekonomikoaren erantzule izango da, identifikatzeko betebeharra bete ez badu.

Beste baldintza batzuk

Erabiltzaileak sisteman behar bezala erregistratutako bizikleta bat soilik aparkatzeko erabiliko du bizikleten aparkalekua, eta ezingo du erabili aparkaleku bat baino gehiago aldi

berean.

Plaza bakoitzean bizikleta bakarra aparka daiteke, eta ez da onartzen beste edozein elementu edo osagarri giltzatzea. Aparkalekuaren barruan guztiz debekatuta dago bizikleta ez den edozein gauza/osagarri uztea.

Zerbitzu emaileak bizikletari gertatzen zaionari soilik erantzungo dio bizikleta aparkalekuko lokalerako sarbide kontrolaren sisteman akats bat sortzen bada.

Bizikleta utzitakoan, erabiltzaileak aparkalekua erabiltzeko eskubidea du izen emateak duen indarraldian zehar.

Haurrak edo salgaiak eramateko orgak ezingo dira aparkatu bizikletatik aparte. Bizikleta bati lotuta aparkatu beharko dira, eta haien ezaugarrietara egokitzen diren plazak okupatu.

Aparkalekura bideratutako espazioaren barruan, ezarritako antolamendua errespetatu beharko da.

Erabilera arauak ez betetzeagatik eta ibilgailua barrutiaren barruan mugitzeko trebetasun faltagatik sortuko dituen kalte-galeren erantzule izango da erabiltzailea Azpeitiko Udalaren aurrean eta gainerako erabiltzaileen aurrean.

Ezin dira xede komertzialekin alokatu edo erabili Azpeitiko bizikleta aparkaleku zerbitzua osatzen duten elementuak, hala nola aplikazio mugikorra, gako pertsonalak, aparkaleku moduluak, softwarea, etab.

Zortzigarrena. Bizikletak uztea

Bizikleta aparkatu duenetik segidako 30 eguneko epean aparkalekua uzten ez duen erabiltzaileak baimena ematen die:

- Azpeitiko Udalari, giltzarrapoa hausteko eta bizikleta horretarako gaituko diren lokaletara lekualdatzeko eta han uzteko.
- PVerde-ri, bizikleta lekualdatzeko eta uzteko.

Zerbitzuan erregistratuta ez dagoen bizikleta bat detektatzen bada, erretiratu egingo da. Erretiratutako bizikleta berreskuratzeke, frogatu egin beharko da bizikleta norberarena dela.

Ez da izango kalte-ordainerako eskubiderik giltzarrapoa hausteagatik.

Bederatzigarrena. Zerbitzuaren bezeroaren arreta eta erabiltzailearen eskubideak.

1. Sarbide kontrola

Erabiltzaileak PVerde-ri egin diezazkioke bere kontsultak sarbideetako gorabeherei eta zerbitzuko altei eta bajei buruz. **673692043** (8:00-18:00) telefonora deitu behar da zerbitzua erabiltzeko behar diren prozesu guztietan aholkularitza eta laguntza jasotzeko

(bizikletak aparkatzea eta/edo erretiratzea...). Telefono hori sarbide kontroleko gorabeheretarako soilik erabil daiteke. Ordutegi horretatik kanpo whatsapp bidez funtzionatzen du.

2. Zerbitzuari buruzko erreklamazioak

Zerbitzuan eragina duten baldintzei eta inguruabarrei buruz edozein erreklamazio egiteko, erabiltzaileak Azpeitiko bizikleta-aparkaleku zerbitzura jo beharko du posta elektronikoko honen bidez: ingurumena@azpeitia.eus.

3. Erabiltzaileak zerbitzuaren gorabeherei, tarifei eta har daitezkeen neurriei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea du, webgunearen edo beste bitarteko baten bidez, eta egoki deritzon erreklamazioak jar ditzake.

Agiri honen barruan hartutako erabilera baldintzetan aldaketarik baldin badago, baldintza berriak onartu beharko dira app edo webgune bidez, eta zerbitzuaren hartzaileari baja eman dakioke baldintza horiek onartzen ez baditu, aurrez tramite egokiak eginda.

Baldintzak onartu direla ulertuko da baldintza berriak komunikatu ondoren erabiltzaileak zerbitzua erabiltzen badu.

Hamargarrena. - Erabiltzailearen betebeharrak.

Erabiltzaileak, zerbitzua erabiltzen duen bakoitzean, honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Zerbitzua eta haren osagai guztiak ardura osoz erabiliko ditu.
- b) Erabilera ez dio inori lagako inolako kontzepturengatik, ez hirugarrenei, ez senideei.
- c) Aparkalekua erregistratutako bizikletekin soilik erabiliko du, agiri honetan ezarritakoari jarraituz.
- d) Aparkalekuren batek duen edozein matxura edo kalte Azpeitiko Udalaren Hirigintza eta Ingurumen Sailaren bulegoetan jakinaraziko du, lekua eta zer egoeratan dagoen adieraziz.
- e) Aparkalekuan sartzan denetik eta bizikleta erretiratu eta irteten den arte, aparkalekuaren erabilera eta kontserbazio onaz arduratuko da.
- f) Aparkalekua erabiltzean, behartuta dago aparkalekua ondo itxita geratzen dela egiaztatzen.
- g) Langile baimenduei edo horretarako esleitutakoei edo agintariei, eskatzen badute, honako datuak emango dizkie: izena, abizenak edo bere aparkalekuek sisteman dituzten xehetasunak.
- h) Norbere izen-emateari lotuta sor daitezkeen datu aldaketak jakinaraziko ditu.
- i) Zerbitzuari emandako datu guztiak egiazkoak direla ziurtatuko du.
- j) Sisteman sartzeko gakoak eta kodeak modu seguruan gordeko ditu.
- k) Ezingo ditu margotu esloganak, marrazkiak, grafitiak, marrazkiak, pintadak edo antzekoak Azpeitiko bizikleta aparkalekua osatzen duten inolako elementutan.

Hamaikagarrena. Erantzukizunpeko adierazpena.

Zerbitzuan alta ematen duen pertsonak adierazten du adinez nagusia dela, berak eta zerbitzuan altari atxikitzen dizkion erabiltzaileek ezagutzen eta onartzen dituztela ibilgailuen

zirkulazioari eta gidatzeari buruz indarrean den araudia, bizikletak erabiltzeko arauak eta oinezko eta gainerako ibilgailuekiko bizikidetzari buruzko arauak.

Erabiltzaileak adierazten du badakiela Azpeitiko Udalak grabazioak egingo dituela zirkuitu itxian bizikleta aparkalekuaren barrutiaren barruan, Azpeitiko bizikleta aparkaleku zerbitzuaren erabilera egokiari begira eta bere funtzioak baliatuz.

Erabiltzaileak adierazten du baimena ematen diola Azpeitiko Udalari app-a edo posta elektronikoa erabiltzeko erabiltzailearekin komunikatzeko sistema gisa.

Hamabigarrena. Kalteak.

Azpeitiko bizikleta aparkaleku zerbitzuan alta emateak ez dakar berekin aparkatutako bizikleten zaintza eta kustodia betebeharra. Azpeitiko bizikleta aparkalekua erabiltzailearen kontura eta arriskura izango da.

Erabiltzaileek instalazioetan sortzen dituzten kalteak udaleko teknikariek egingo duten tasazioaren arabera ordainduko dira eta udalak aurrez eskatuta.

Hamahirugarrena. Datuen babesa.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, izena ematean pertsonalak Azpeitiko Udalaren titulartasuneko Azpeitiko bizikleta aparkaleku fitxategian sartuko dira eta emandako datu zerbitzu prestazioarekin lotutako zereginak egiteko erabiliko dira.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak balia ditzake, Udalari idazki bat bidalita, Plaza Nagusia 5ean. Nahi badu, horra jo dezake abonua hartzean jasotako datuen xedeari, tratamenduari eta erantzukizunari buruzko informazio gehiago izateko ere.

Aparkalekua bideoz zainduta dago, eta, beraz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Datuak Babesteari buruzkoaren 5.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hau jakinarazten da:

1. Bere datu pertsonalen hartzailea Intelligent Parking S.L. enpresa dela, eta datu horien jabea Azpeitiko Udala.
2. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak balia ditzakeela, udalari idazki bat bidalita, Plaza Nagusia 5ean. Nahi badu, horra jo dezake jasotako datuen xedeari, tratamenduari eta erantzukizunari buruzko informazio gehiago izateko ere.
3. Tratamendu fitxategiaren arduraduna Azpeitiko Udala dela, Plaza Nagusia 5ean kokatua.

Hamalaugarrena. Ez betetzeagatiko erantzukizuna, aplikatzekoa den legeria eta jurisdikzio eskuduna.

Azpeitiko bizikleta aparkaleku zerbitzuaren sarbide eta erabilera baldintzetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeak berekin ekarriko du zerbitzuan baja ematea, tramite egokiak egindakoan.

Hortik sortuko diren auzigaiak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren mende jarriko dira.